

URREMENDI

husturialdeko doako aldizkaria / 20. ebk



“MEECE”. ALDAKETA KLIMATIKOAREN ERAGINA ITSAS EKOSISTEMENGAN

IKERKETA ZIENTIFIKOA BEHARREZKOA DA GURE EKOSISTEMARENGAN ALDAKETA KLIMATIKOAK DAUKON ERAGINA ZEHAZTUTERIK, EBKO MEECE PROIEKTUAK, AZTI-TEKNOLOGIA BE PARTE DANA, HORIXE DAU HELBURU.



El zaino, una especie socijerada, catalogada como



hermoso mediano plato. Klimatikoko konortze fresko eta inerrakoren helburu, oinarri eta gero.

Aldabara | Erretxalau | La ermita de San Pedro y San Pablo de Barrios | Antxon eta Arramanten ibilbidea (2 zatia) | Urdailai-Quebec | Kabilloxi Eitutumeen etxerria | Cielos Gamales

2008.urtea. 20.zbk.

ZUZENDARIA:

Pedro María Garay

ARTE ZUZENDARIA:

Pedro María Garay

DOKUMENTAZIOA:

Rafael Urien

ERREDAKZIOA:Lourdes Arroitauregui,
Rafael Urien, Laura Perez,
Maider Arasoa.**EUSKERA KORDINATZAILEA:**

Esther Kortá

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Alicia Rojo

KOMIKIGILEA:

Alex Orbe, Egoitz Moreno

ARGAZKIAK:Pedro Garay, Rafael Urien,
AZTI-Tecnalia.**KOLABORATZAILERAK:**Antonio Pou, Mikel Unzueta,
AZTI-Tecnalia, Jose Antonio Torrealday.**ADMINISTRAZIOA:** 94 625 76 09**PUBLIZITATEA:**

688 61 66 22/ 657 790 836

KORDINATZAILEA:Nueva Europa Diseño, Imagen y
Comunicación, S.L**INPRIMATEGIA:** Grafinorte, S.AUrremendi aldizkariak ez dauz bere gain
hartzten laguntzaileen errixiak eta
argitaratutako gutunetan esaten dana.**ALE KOPURUA:** 16.000 ale**ARGITARATZAILEA:**URREMENDI, Gemika-Berneko Landa-
garapen Alkartea. Domingo Alegria
Enparantza, z/g. 48300
Gemika-Lumo (Bizkaia)**e mail:**

urremendi@euskalnet.net

web orria:

www.urremendi.org

e mail:

busturialdeakomunikazioa@euskalnet.net

web orria:

www.busturialdeaurdaibai.com

LEGE GORDAILUA:

BI-2675-06

3 EDITORIALA**4 IRKIMARRA****5 PIL PILEAN****6 GAURKOTASUNA**GARAPEN EKONOMIKOA: Bermeoko Merkatu Azoka.
B"H"ERRIAK.**20 AMALUR****LUR ABERATS:**El corzo, una especie recuperada cinegéticamente /Aladierna
ITSASGORA:

Aldaketa klimatikoaren eragina itsas ekosistemengan/ Erreboito

30 GEURE ALTZORRAK: La ermita de San Pedro y San Pablo de Ibururi**32 ZER EGIN ETA NORA JOAN**

RUTA: Ardoa eta Arrainaren ibilbidea (II zatia)

GASTRONOMIA: Kaminiko Jaletxea

38 MUNDUTIK ZEHAR: Urdaibai desde Québec**40 ARTISTAK**

PERTSONAIA: Mundakako Katilotox Emakumeen Elkartera

44 GEURE KIROLAK: Ciclista Gernikaren 50 Urteurrena**49 IRAGARKIAK**

30 GEURE ALTZORRAK:

La ermita de San Pedro
y San Pablo de Ibururi



32 ZER EGIN ETA NORA JOAN

Ardo eta Arrainaren
ibilbidea (II.zatia)



38 MUNDUTIK ZEHAR:

Urdaibai desde Québec



44 PERTSONAIA:

Mundakako Katilotox
Emakumeen Elkartera



Gu geu

KOMERTZIOAN BE ERRONKAK ETA LORPENAK BATA BESTAREN ATZETIK DATOZ

Busturialdeak komertzio txikian dauko eta euki dau aberastasun bidea, garapen ekonomikoaren ardatz garrantzitsua. Gaur egun sektore honen erronketako bat uri egitura komertzialak mantentzea eta bultzatzea da. Generazino erreleboari aurre egin eta jarduerak komertzial barritzaileak bultzatuta, jakina.

Horrek ez dau gura esan geure komertzioa bertan behera utziko danik. Izan be, Busturialdean urigunetako komertzioa inguru errealtate ekonomikoari eta sozialari lotuta dago.

Kontsumitzailea da funtsezkoena, eta honeri be ezaguriarri aldatuten jakoz; gero eta arinago gainera, ze denbora gitxian munduak, geure gizarteak, geure inguruak, aldaketa erabagiorrak izan dabez eta geure usadio eta erosketan nabariak dira.

EAE guztian moduan, Busturialdean be populazio zaharra daukogu, emakumea lan munduan sartu da eta imigrazioa hor dago. Internet muga bako eraskuslehia da, azalera handiko zentroekaz batera, bertoko eskaintzearen prezioekaz eta barietateekaz lehiatuten da eta komertzio txikien eta handien arteko apurketea eragiten dau.

Honeri gaurko krisi egoera gehitu behar jago eta horrexegaitik guztiagaitik hain zuzen, jasotzen dabe komertzio txikiak erakundeen artea eta laguntasuna, enpresari txikiak helburuak berrikusi, barritu eta aurrera egitera animatzeko.

Ideiakaz, ekimenakaz, beharraz eta ballibideekaz, erronkak eta lorpenak bata bestearen atzetik etorten dira. Ekonomia global eta dinamikoan, lorpenak, alkartetzatik, sektorearen profesionalizaziotik eta alde nahikoa lortzetik datoz, horixe da gure beharra herri mailan. ■

UMPRO. KALIDADEA GOIBURUI

UMPRO: Errealdak Inbuztatzen du. Umpro: Inbuztatzen du Errealdak.

UMPRO: Errealdak Inbuztatzen du. Umpro: Inbuztatzen du Errealdak.

UMPRO: Errealdak Inbuztatzen du. Umpro: Inbuztatzen du Errealdak.

► **ARGI FALTA**

Negua dator, gabonak datoz, sasoi politik familia artean egoteko. Baina honegaz batera hotzak datoz, edurrak datoz, euriteak datoz... eta herri askotan argi falta dator. Eta ez, zintzilik, urte bakoitzean, udalek eskegitean dabezen gabonetako argiak (gero eta arraragoak zenbait lekutan), ez, horrek prest dagoz geure gabonetako kontsumismoa piztuteko. Moztu egiten diren argiak askotan geure etxeetakoak izaten dira, sarritan. Ez dakit zer dala eta pai-ratu behar dogun herriarrok, (fakturak falta barik ordaintzen doguzenok), argi mozteak neguan. XXI. mendeko infrastrukturak ez dira heltzen Busturialdeko herrietara? Noren ardura da hori? ■

Bidali zeure idatzia helbide elektronikoa honara: urremendi@euskalnet.net
Envianos tu carta a la siguiente dirección electrónica: urremendi@euskalnet.net

MOKIA S.L.
sol. de mantenimiento

INDUSTRIALIZADO
INDUSTRIALIZADO
INDUSTRIALIZADO

ARGIBIDE 3000P
SOLUCIONES DE ILUMINACIÓN

INDUSTRIALIZADO
INDUSTRIALIZADO
INDUSTRIALIZADO

Anúnciese en
URREMENDI
946 25 76 09

Uricar Automocion S.L.
Equipamiento del Taller Mecánico

Polig. Amuruga 3, Bajo-Fuente 9
Barrio Arane-GERNIKA (Euzkadi)
Telf. 946271329-Fax 946256033
<http://www.uricar.es>

EUSKADI BTT EN GERNIKA-LIZASOAIN
EUSKADI EN BTT

www.gernika-btt.com

BERMEOKO MERKATU PLAZA. KALITATEZKO KOMERTZIO FRESKO ETA HURREKOAREN LEHENA, ORAINA ETA GEROA

Merkatu plazak gure herrien bizitza komertzialaren oinarri eta adierazle izan dira. Dana dala, gaur egungo kontsumismo haizeak eta beharizan barriek gizartearen abiada ikaragarripen, gaxt egin dabe plazek bizirik irautea. Bermeon, hornidura-azokeak aurrera egin gura dau, baina izazera galdu barik: freskoa, hurrekoa, kalitatezkoa.

Bermeoko merkatu plaza, historiaren lekuko izan da, Frantziskotarren konbetuko klaustro gotikopean, Taraska Plazan, hornidura-azoka bihurtu zan sasoi haretan. *"Orain iturrria dagoan lekuan arraindegia egoozan. Ni hantxe hasi nintzen neure postuagaz, 28 urte daroadaz plazan eta ez dauko zer ikusirik lehengoagaz. Orduan, Gemikatik, Bermeotik, alboko herrietatik etorten ziran errekaduak egitera. Batele-ruiek eguneko arrainegaz... Ambiente polita, benetakoa."* gomutaten da M^oCarmen Iturraspe, Merkatu Plazako Saltzaileen Alkarteko idazkaria. ▶



Bermeoko Merkatu plazako saltzaileek herriko komertzioaren gune nagusia birsortu gura dabe plaza.



Bermeoko antzinako merkatua Frantziskotarren konbentuaren klaustroan.

La Asociación de Comerciantes de la Plaza del Mercado de Bermeo busca renacer como centro neurálgico del comercio local, dando a conocer lo que la plaza ofrece, a través de diferentes campañas de promoción a pie de puesto. Entre las iniciativas puestas en marcha por la Asociación destaca la celebración de plazas especiales, como la pasada feria de San Martín.

▶ Frantziskotarren konbetuko klaustro gotikoa merkatu plaza izan zan, eukon ondare balore historikoa eta arkitektonikoa zala eta barrizatu egin eben arte. Lehengo burdi, jende, ortuadi eta arrainaren atzera-aurrera ahaztu ziran, gaur egin komertzioaren beharreda baino ez da nagusi, eta merkatuko saltzaileek ez dabe etsi gura. *"Plazak geldiro-geldiro galitzen joan dira eta supermerkatu haundiak irabazten,"* dihoie atsekabetuta plazako saltzaileek. Hornidura-azokea 1995etik aurrera Zubiaur tar Kepa kalean kokatu zanetik dago marbxan Merkatu Plazako Saltzaileen Alkartea *"Alkartearren helburua sortu zanean indar gehiago egitea zan izen bakar bategaz aurrera egiteko"* azalduten dabe. Saltzaile talde profesional honek herriko komertzioaren gune nagusia birsortu gura dau plaza, plazeak eskaintzen dauana ezagutzera emon, bertan, postuetan egingo diren promozino kanpainakaz. *"Plazeari bizia emon gura deutsugu eta jende gehiagok ezagutu dagiala zer dagoan barruan, inguruko produktu onak daukoguzala erakusteko. Danetarik daukogu, ortuadia, baserritarrak, arraindegia, harategiak"* argituten dau Joseba Barturennek, plazako saltzaileen bozeramaileak.

hurrengo orrialdera doa ▶

La plaza del mercado de Bermeo lleva en su actual ubicación cerca de 13 años, después de ser testigo del paso de la historia bajo el claustro gótico del convento de los Franciscanos, en la plaza de Taraska, que en una época se transformó en plaza de abastos. Prácticamente desde que el mercado de abastos se situó como infraestructura física en su actual ubicación, en la calle Zubiaur tar Kepa, (1995), está en marcha la Asociación de Comerciantes de la Plaza del Mercado.

GARAPEN EKONOMIKOA

► aurreko orrialdetik dator

Alkarteak martxan ipini dauazan ekimenen artean adierazgarriena plaza bereziak ospatutea da, San Martinen eguneko esate baterako, bertan betiko postuak eta baserritarak batu ziran beste saltzaile batzuekatz batera: Euskal pastela, txakolidunak, ezti saltzaileak. *"Kontua promozioak egitea da noizik noizera, jaiakatz batera. Hurrengoia Santa Luziako plazako berezia izango da, abenduaren 13an"* dinoskue plazako saltzaileek. Plazako jarduera komertziala indartuteko beste ekimen bat, eskaintza egunak ipintea izan da. Eguaztenero, Plazako Saltzaileen Alkartekoak diren hordinura-merkatu-ko postu guztiek euren produktuaketa bat prezio txikian eskaintzen dabe. Nolanik, bezeroak erakarri gura dira plazara. *"Kalitatezko produktu berak dira baina egun horretan merkeago"* diñoe saltzaileek.

Tratu hurrekoia, zuzena eta banakakoa, kalitatezko produktuak, freskoak, ingurokoak eta prezio onetan. Horrexeek dira hornidura-azokaren ondasunak, eurretaz ez esan beharrik ez dago baina, sakadatu bat emon behar jake ezagutzera emoteko eta gaur egungo bizi erritmorra egokitzeke. *"Gaur eguneko beharizantetara egokituden ahale-*

gituden gara eta horrexegeaitik hasi ginen zapatu goizetan zabalduten. Bariku arratsaldeetan zabalduta ahal dogun be ikusten gabiltz" azalduten deuskute saltzaileek. Gaur egungo beharizantetara egokitudetako ahaleginari esker, merkatura gero eta gazte gehiago joaten da. *"Aspaldion ni banago ikusten jende gaztea, batez be zapatuetan. Jaungoikoari esker! Udan etorri zan gazte batek, jol hemen bai al dala erosi arraina, desberdinak eta guzti, esan eban"* diño Idolia Zabalak, Bermeoko Plazako Saltzaileen Alkarteko presidentek.

Bermeoko komertzioa sustatutea komertzianteen eta herriko adinaztioaren arteko beharra da, legealdia honetan Komertzio Saila sortu dabe herriko bizitza komertziala berregituratuten laguntzeko. *"Azokako merkatariaik be hasi dira mobiduten, azokeari beste bultzada bat emoteke. Udalak emongo deusie bere babesa, duda bariq. Argi dago herriko komertzioa aurrera atarateko ezin dogula atara banan-banan, alkarlan bat sortutea inportantea da"* diño Xabier Legarretak, Bermeoko alkateak. Lankidetzaz honen ondorioz, Urremendi, Landa Garapenerako Alkartearen bitartez, barritu dira udal plazearen material batzuk:



Bermeo Merkatu Plazan tratu personala eta hurbila eskaintzen da bezeroari.

GARAPEN EKONOMIKOA

postu barrientzako mahai-zapiak, saltzaileentzako pisu barriak eta banketa bereziak. Alkarren arteko derringorrezko beharra da, komertzioa bizi-barrituteko, mantentiduteko eta hurreko benta hau, freskoa eta geure produktuen kalidadeagaz, gure herrien egunerokoan, oinarritzakoa izaten jarrai dagian.

Holanbik laburtuten dabe erroneka Bermeoko plazako saltzaileek: *"Plazeta da geure eguneroko lekotxua, eta hori lekotxua zaindu egin behar da"*. ■



Eguztenero oferta egunak ospatzen dabe plazako komertzianteeek, bezeroak erakartzeko.

Otras de las novedosas apuestas para impulsar la actividad comercial en la plaza, ha sido la puesta en marcha de las jornadas de ofertas. Cada miércoles todos los puestos del mercado de abastos, miembros de la Asociación de comerciantes de la plaza, ofrecen uno de sus productos a bajo precio.



Produktu freskoak eta bertokoak aurkitu ahal dira Bermeoko Merkatu Plazan.

Cercanía, trato directo y personalizado, productos de calidad, frescos, de la zona, y a precios asequibles. Esas son las bondades del mercado de abastos, que aunque hablen por sí solas, necesitan un empujón para darse a conocer y amoldarse al ritmo de vida actual.

AJANGIZ

POSTONTZI GEHIAGO URRUN DAGOZAN ETXEETARA BE KARTAK HELDU DAGIAZAN



Udalak postontzi komunitarioak ezarriko dauz herriko auzoetan.

Udalerrian posta banaketea ordenatua izateko, kontuan hartuta urruneko auzoak eta baserri solteak, Ajangizeko Udalak postontzi komunitarioak ipiniko dauz auzoetan. Holanik, postontziak bide edo errepede bazterretan ipinita, baserrikerri baserri joan beharrik ez dabe eukiko eta postariet arinago egingo dabe behar, baina batez be, eskura emateen eta igorpenen segurtasuna eta erregulartasuna bermatuko dira.

Guztira udalak auzoguneetan 30 postontzi komunitario ipintzea aurrirakusten dau. 7 banako postontzi, 3 postontzi bikoitz, hiru etxebizitzatarako bat, lau lauko etxebizitzatarako, 3 postontzi sei auzotarrentzako, beste sei zortzi etxebizitzatarako, bi postontzi komunitario 10 etxebizitzatarako eta 12 etxebizitzarako 4 postontzi.

Postontzien kokapena eta banaketea auzoz auzo egingo da horretarako,

auzotarrak argitu dira lehenengo zeintzuk diran benetako beharrak, baina postetxearen eskabideak be kontuan izan dira, ze gaur egun, baserri auzoetan banatuteko postontziak bide bazterretan egotea eskatuten dau.

Aurrekontua da Ajangizeko Udalak BFAko Nekazaritza Sailean diru-laguntzea eskatu dau Urrumendi, Landa Garapenerako Elkartearen bitartez. ■



Postontzi barrietak baserrikerri baserri joan beharrik ez dabe eukiko postariet eta arinago egingo dabe behar.

“SANCTI SPIRITUS” SASOIEKAZ BAT DATORREN BEHARREZKO EGOITZA

Bermeoko Gizarte-Ongizate Patronatuak udalerriko “Sancti Spiritus” Zaharren Egoitza barritzeko proiektuaren azken fasearen beharrak emongo dauz laster. Eraikineraren behere solairua konponduko da eta horrekegag amaituko da zentro guztia barritzutea.

2009ko apirilera Bermeoko “Sancti Spiritus” Zaharren Egoitza guztia barritzutea egingo da, proiektuaren azkenengo fasea, seigarrena amaituten dabenean. Bermeoko Udaleko Gizarte-Ongizate Patronatuak orain dala gixi atara dauz beharrik lehiaketa publikora; eraikineraren solairu noblea konponduko da, bertan jantoki nagusia eta leku komunak dagoz.

760 m²ko azalerea dauko eta panel mugikorrek ipiniko dira instalazioak gauza askotarako erabili ahal izateko. Espazioa hainbat gelatan banatu ahal izango da, momentuan momentuko beharrak ikusita.

Argiaren eta uraren instalazio zaharrak be barritzuko dira, ze eraikineko gainontzeko instalazio barrituak ondo ibiltea eragotzen dabe eta. Lau hilabeteen amaituko dira beharrak bertakoan, egiliarren, eguneroko martxea ez galazoteko. 400.000 Eko inbertsioa dauko proiektuak eta %50 Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak ordainduko dau.

Aurreko faseetan bertakoan errebilitazio eta mantenimendu fisikorako gimnasioa eta administrazio bulegoak egin ebezan.

Apirilerako dana amaituta egotea aurrirakusten dabe. ■



Nagusien Egoitzaren instalazioak guztiz barritzutea geratuko dira.



Sancti Spiritus nagusien Egoitzaren instalazioak guztiz barritzuteko beharrak 2009 urteko apirillean amaituko dira.

KULTURAREN ALDEKO APOSTUA

Gautegiz-Arteagako udalak pasa den zemiendiren 28an inaguratu eban Aretxederreta Kultur Etxea jardueraz betetako egitarau batezag. Inagurazinoan Josu Naberan eta Sabin Muniategi "herriko semeak" omendu ziren, eta euren izena ipini jaken Kultur Etxearen instalazio nagusiei.

Udaletxe ondoko plazako "Aretxederreta Kultur Etxea"ren inagurazino ofizialari bala-partaren soinuek emon eutsen hasierera. Gautegiz-Arteagako auzotarrak be zentro kultural barriaren ekitaldian izan ziren. Liburutegiak eta Areto Nagusiak Sabin Muniategi herriko olerkariaren eta Josu Naberan, euskara adituaren izenak eroango dabez hurrenez hurren. Biek, Sabin Muniategiaren



Gautegiz-Arteagako Aretxederreta Kultur Etxearen inagurazino ekitaldiaren momentu bat.



Inagurazinoan herriko semeak diren Sabin Muniategi eta Josu Naberan omendu euben.

kasuan bere familiarik, jaso euben euren izena jarotzen Kultur Etxeko areto nagusian eta liburutegiaren jarritako plakea erreplikak. Unerik hunkikorrena Sabin Muniategiaren etxekoek olerkigintzan egin euben beharra gomutatu ebenean suertatu zan eta omenaldia eskertu ebenean. Josu Naberanek be harro jaso eban bere omenaldi plakea "Aretxederreta Kultur Etxe"ko areto bateri bere izena emoten deustona. Ekitaldiari amaierara emoteko Xabier Amuriza bertsolariak bertso batzuk bota eutsezan omenduei eta Kultur Etxeari. Artie Dantza Taldeko dantzariak dantzatu eutsen aurreksua omenduei.

"Aretxederreta Kultur Etxea"k sotoa eta pisu bi daukoz. Lehenengo solairuan 12 laguntzako bilera gela, 0-10 urte bitarteko umentzako ume-liburutegia, ludutokea mahai jokoez, kolboretak, esku beharretarako materiala, tallerak egiteko gela eta "Josu Naberan" areto nagusia 120 laguntzako lekuagaz eta proiezioak emoteko edo bestelako ekitaldiarako be baliagaria. Bigarren solairuan "Sabin Muniategi" liburutegia, ondoan ikasteko gela, KZgunea bost ordenagailuz eta internetagaz eta erabilera askotarako gela. Terraza haundi bat be badauko.

Eraikin guztiak beteten dau akzesibilitate araudia, mugikortasun giteko laguntzako erretzasun guztiekaz hornituta dago.

"Aretxederreta Kultur Etxea" astelehenetik barikura dago zabalik 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etatik 20:30etara ■

MAUME: HISTORIADUN AUZOA BIZIBARRITUEA



Maume auzoko erdigunea.

Muxikako udalak Maume landa auzo historikoa barritu gura dau, udalerriko balio haundiko ondarea daualako. Denboraren joanek ingurua hondatu egin dau eta gainera isolatuta be badago, aparte. Faseka burutuko da proiektua eta orain, auzoko erdiguneko plazara urbanizatuko da.

Udalerriko auzorik deigarriarenarenetikoaaren apartekotasuna berreskuratuteko, Muxikako udalak Maume ingurua konponduten dihardu. San Lorentzo baselizearen eta abadetearen estalkia konpondu ebezan eta 2009ko lehen hilabeteetan plazara konpondutea dago aurrirakita.

Plazara urbanizatu egingo dabe, espaloiak konpondu eta zerbitzuak eta azpiegiturak barriztu, argia eta saneamendua, Maumek, landa auzoa da dan-dana, ekipamendu urbanistiko gaurkotua eta funtzionala izan dagian eta bide batez, bere ondarea mantenu. Beharron aurrekontua 73.000 eurokoa da eta udala Eusko Jaurlaritzagaz dabil diru laguntzea kudeatuten. BFAgaz be hartuemonetan dabil, Urrutxutik Durangora doan bidetik eskegitzen den errepidea konponduteko.

Maume auzoan, udalerrientzako garrantzi haundikoak diran elementu historiko, kultural, etnografiko eta gastronomikoak dagoz. Besteak beste, egurrezko koroa daukon San Lorentzo baseliza barrokoa, inguruan auzoa dauala. Olea burdinolearen arrastoak eta Magunaseko Portalean Astoagana galtzadearen arrastoak. Galtzada honetatik joaten zan aintzinako ardo eta arrainaren ibilbidea, bibere eta pertsonen pasoa XIV-XVI. gizaldietan. Gainera, gaur egun, Idiazabal Jatorrizko Deitura dauan ardi ustategia dago eta gainontzekoa baserri solte batzuk dira. ■

MUNDUARI BEGIRA DAGOAN LEHIOA

Sukarrietako udala Interneten bidez, herritarrei informazioa emoteko eta zabalduetako eta udalerrira sustatutako, udal web orria sortzeko beharrak amaituten dabil. Sukarrieta muga bako komunikabideen zirkuitoetan sartzeko helburuaren ondorioa da ekimena, Guggenheim Urdaibai Museoa izango dalako barriak sortu dauan informazio eskabideari erantzuna emoteko.

Sukarrietak 2009an web orria eukiko dau, herritarrek zein munduko internetautak klik batez udalerrira hureratu ahal izango dira. Sukarrietako udalak udal web orria egiteko proiektua emon dau, gaur egun behar-beharrezkoa inon bada, udalerraren gaur eguna eta etorkizuna islatuteko eta Guggenheim Urdaibai Museoa Sukarrietan kokatzearren gaineko informazio eskabideari erantzuteko. Dana dala, lehenengo helburua herritarrek zerbitzu arina eta eraginkorra izatea da eta horretarako, Udala web-a izango danaren elementu, eduki eta banaketea aztertzen dabil. Kokapen geografiko, plano eta kale-izendegiaz gain, udalerrira argazkien bidez erakutsiko da. Web orriak udalerraren, jaien eta tradizioen berri be emongo dau.



Inaugurazioan herriko semeak diren Sabn Muniategi eta Josu Naberan omendu ebeeen.

Herritarrek eurek be udalerrira ezagutu dagien, Sukarrietako Udalak toponimia-planoa sortu gura dau, auzoak, Sukarrietako kaleak, uri mugak, bideak, ondare historiko, turistiko eta kulturala batuta. Udalerraren argitaratutako kale-izendegia dauan lehenengo plano da, argazkiak eta turismoa-ren eta udalerriko kulturaren datu interesgarriak batuko dauz. 3.000 ale banatu dira herritarren artean.

Herrieren nortasuna sendotuteko Udal Gobernuaren ekimenen artean, 2009ko egutegia, airetik ataratako Sukarrietako bistak daukozana, bialdu jako herritar bakotzari. Eskualdeko udalaxeetara be banatu da. ■



Gautegiz-Arteagako Aretxederretara Kultur Etxearen inaugurazio ekitaldiaren momentu bat.



Arratzuko Udala Loiola auzoko "Escola Zaharren" eraikinean udalutetako egiteko beharrak amaituten dabil.

Eraikinare lehenengo solairuan dago areto multifuntzionala, 3-14 urte bertako umeentzako jarduerak eta hiru garren adinrentzakoentzako tailarrak edo ikastaroak burutuko dira, besteak beste. Mobibimendu arazok daukean lagunak akzesibilitate segurtasun guztietzak bertaratzeko, igogailua ipintzen dabilz. 2009 hasierarako beharrak amaituta egongo dira. Ludotekeak Arratzu erdiguneko aisialdirako eskaintzea beteko dau, "Escola Zaharretan" ematen diran beste zerbitzuek batera. Beheko solairuaren alde baten gela multifuntzionala dago batzarrik, berbaldiak, hitzaldiak edota proiektioak egiteko eta beste alde baten herriko medikua dago. ■

Busturiko Udalak 236.000 euroko inbertsioa egin dau udalutetako eta herriko bide nagusietako traba arkitektonikoak kenduteko. Udalutetarako bertarako sartu-urtena nagusiei, ezinduei edo mugikortasun urriko pertsoneri erretzuteko, udalak igogailua ipini dau udalutetaren barruan eta laster izango da martxan. Gainera, urtea amaitu baino arinago, herriko leku ibilientzen traba arkitektonikoak kenduteko beharrak be amaituko dira. Gaur egun, Altamirako eskolatik tren geltokira doan bidea eta Axpen, udalutetik Itsasbegi tren geltokira doan bidea konpanduten dabilz. Espalioiak bajatu eta zabaldu egin dira, horretarako 68.000 euroko inbertsioa egin da eta BFAk %23 diru-laguntzea emon dau. Udalutetean igogailua ipinteko aurrekontua 168.000 eurokoa izan da eta udalak %70eko diru-laguntzea izan dau. ■



Eako Udalak udalerriko Akzesibilitate Plan Nagusia dauko, herritarren bizi kalitatea hobetu eta udalerrira atsegina eta abegitsua izateko. Uri planifikazioa da, baina herri oso mailan planteatua, lau fasetan burutuko da lehenetasun eta beharizan premiazoenak kontuan izanda. Altxikar auzoa, Angetexu auzoa, erdiguneko altzariak edo udalerriko seinalizazioa hobetuz izango dira jardun batzuk. Akzesibilitate Plan Osoan aurrikusitako jardunak zein aurretiazko behar neketsuaren aurrekontua 4.000.000 eurokoa da. Udalak Eusko Jaurilaritzaren diru-laguntzea izango dau. ■

Elantxobeko Udalak lortu dau Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailetik antzinako neska eta mutilen eskolaz zaharrak zentro polibalente egiteko proiektua garatutako diru-laguntzea. Honegaz, herriko bizitza sozio-kulturala bizituteko proiektu haundia, 431.264 Eko aurrekontua daukona, aurrera doa. Orain arte Elantxobeko gazteek eta umeek denbora pasarako eta alkartuteko leku bi baino ez dabez euki herrian: umeen gela eta arrautal-dearen kirol zentroa. Elantxobeko Udalak egingo dauan zentro polibalente honegaz, udalerraren eskabideari erantzuna emoteko instalazio sozio-kulturalak izango dauz herriak. Udal liburutegia, Kzgunea, erabilera askotarako aretoa: hitzaldiak, berbaldiak, tailarrak edo beste edozein jardueratarako, eta gazteentzako gelea izango dira eraikinean. ■



EREÑO



Erenoko Udalak abenduan udalerriko jarduera kulturala dinamizatuko dau ekintzaz betetako egitarauaz. Hilabete-an zehar, herritarrek eta bisitariak Erenoko garaian erakusketak bi izango dabez ikusgai. Lehenengoa, abenduaren 16tik 23ra, Bizkaian eta Busturialdean erreferentea, erakusketek daukon lurraldeko udalerrri bakarra dalako. "Basoak

Klimaren aldaketaren aurrean- Bosques frente al cambio climático" izenburupean, Eusko Jaurilartzako Ingurumen Sailak eta Baso Injeniarriaren Elkartearen Euskadiko Ordezkaritzak, Erenoko Udalaren laguntzeagaz martxan ipini daben ingurumen sentsibilizazio kanpainaren lagungarria da erakusketak. Gabon jaietan Esteban Alberdi, herriko artistaren "Forja Lan Artistikoa. Burdina Beltza eta Gorria" lana be ikusi ahal izango da. Gastronomiako zaleentzat herriko txokoen ikastaro bat burutuko da abenduaren 19arte, 15 herritarrek hartuko dabe parte. Gainera, abenduaren 13an Tolosako Maala baserrira egingo da urteera kulturala, gaztaria, ezta edo barrukiak zelán egiten diran ikusteko. Abenduaren 17an herentzien gaineko berbaldia egongo da eta Gabonetako betitiko jarduerak, abenduaren 26ko PINera bisiteta barruan dala, beteko dabe udalerriko eskaintza kulturala. ■

ERRIGOITI

Errigoitiko Udalak Metxikas eta Madalen landaguneetako antolamendu barriaren prozeduran aurrera doa. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuaren balezko xostena jaso ostean, antolamendu barriagaz indarrean dagozan orain dala 19 urte onartutako arau subsidiarioetan adierazten diran landaguneen urigintza antolamendua zehaztu gura da; izan be, Errigoitiko Udala izan da Urdaibaiko Biosfera Erreserbako udalerrien mugen barruan landagune bat antolatu dauan lehenengo herria. Metxikas auzoan familia bakarreko 11 etxebizitza barri eraiki ahal izango dira. Madalenen, oster, 4. Antolamendua Errigoitiko Udaleko teknikoei burututako espediente luze eta neketsuaren ondorioa izan da. Urdaibaiko Patronatuko teknikoen laguntzeaz izan eben eta alkateak eskertu gura deuseuki daben sentsibilitate, eurek barik ezin izango ebetako aurrera atara. Antolamendu barria enpresa espezializatu batek egingo dauan paisaie-ingurumenaren gaineko inpakua eta ingurumenaren ebaluazioaren gaineko ikerketaren zain dagoz, gero Euskal Herriko Antolamenduen Lurralde Ekintza Sailera bialduteko eta handik BFA,ra behin-betiko ebazpenerako. 2009an biak amaituta egotea aurrirusten dabe. ■



FORU



Foruko Udalak J.D. "Bizkaiko Txakolina" Batzorde Arautzaileagaz batera, omenaldi hunkikorra eskaini eutson, Foruko Arontegiak baserrian txakolina egiten ebilela hil zan Juan Mari Llona Foruko semeari eta txakolingileari. Omenaldia San Martin jaietan burutu zan. Bere omeneko plaka bat aurkeztu eben eta orain dala 200 urte herria erabilten ebezan mahats parren antzean eraikitako J.M. Llonaren omeneko monumentua estalgabetu eben. Urdaibai Dantzaldaren dantzaldia eta Olasagasti aizkolariaren erakustaldia be izan ziren, omenduen herri kirol zaletasuna jakinda eta San Martin jaietako kide zalako. Ekitaldian Foruko Udaleko ordezkariek, Ikern Zuloaga, Nekazaritzako Saileko zuzendaria eta J.D. "Bizkaiko Txakolina" Batzorde Arautzaileko presidentea, Asier Arrazul izan ziren. Herriko txakoli ekoizlearen familia auzotar askok be babestu eta lagundu eban egun horretan. ■

GERNIKA-LUMO



Ibarrangeluko udalak jarduera kulturalak prestatu dauz herriko txikienezkatu datozen egunetarako. Ibarrangeluko Kultur Etxea Olenztzeroren etorreraren prestatze beharren lekua izango da. Udalerriko txikiene abenduaren 20an, zapatuan, ikazkin maitagarriaren "Olenztzer" pelikula ikusi ahal izango dabe 17:30ean.

Ostean meriendea eta Olenztzeri itxaroten irrikitan dagozan umeentzako diskotekeak egongo da. Egun handia, abenduaren 24 izango da, herritarrek abesten urtego dabe. Elizaldetik 16:30etan, horretarako baserriant jantzia etorteko deia egin jake. Berandutuago, txikiak Olenztzerori berari emongo deutzek kartak eskura eta ondoren gaztaria erreak izango dabez. Abenduaren 28an, domeka, Barakaldoko PINera joango dira. Ibaetatik urtego dau autobusak goizeko 10:00etan eta arratsaldeko 16:00etan bueltatuko dira. ■

IBARRANGELU

Kortezubiko Udalak laster amaituko dau herriko argiak ipintea. Kortezubiko auzoneek baeukezan herriko argiak, baina Santa Ana, Basondo eta Oma auzoetako urruneko etxe edo baserriena falta zan. Auzo horreen beharrikabak ahal dan ondoren beteteko, Kortezubiko Udalak baserri baserri aztertu eban egorea. 2009ko lehian hildabeteetan amaituko da argiak ipintea, laster hasiko dira faseka eta inguruka. 182.000 Eko aurrekontua dauke eta Udalak Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saileko %46 diru-laguntzeaz izan dau. ■



KORTEZUBI



Mendatako Udalak Gabon jaiak ospatuteko jarduerak betetako egitaraua dauko. Olenztzeroko datorren abenduaren 20an etorriko da Mendata, ikazkin maitagarri astoagaz eta burdiagaz etorriko da, eta harrera egiteko jaiak egingo dabe. Umeentzako kandelak prestatu dira eta danak olenztzeroz jantzia etortera animaten dabez. 16:30etatik aurrera Artape eraikinararen ondoren umeek eurek egin daben etxetxaren barruan itxaroten ahal izango deute Olenztzerori. Gaztainak erreko dira tanbolinean, txokolata txuroekaz eta tostadakaz, sagar erreak eta umeentzako opariak egongo dira. Herriko abesbatzak alaituko dau giroa Gabon kantakaz. Abenduaren 21ean, domeka, meza izango da San Migel Elizan herritarrek abesbatzaz, Gabon kantak abestuko dauz. Abenduaren 23an 20:30etatik aurrera herritarrek hartuko dabe erreboia eta Marijesiak abestuko dabez herri zuntzen talde bitan banatuta. Jai egitarauaz amaitzeko BECera, Gabonetako Haur Parkera egingo dabe urteera datorren abenduaren 26an. ■

MENDATA

Bherriak

MORGA

Morgako Udalak zabor kontainerrek lurperatuteko sistema moderno bat jarri dau Andra Mari auzoan. Beharrak hasi barriak dira eta urtea amaitu orduko burututa egongo dira. Lurperatzeko sitemeagaz hondakinen kudeaketan, udalak kanpoan dagozan kontainerrek sortzen daben hat-saz eta begietarako eragainaz amaitu gura dau. Zazpi kontainerrentzako lekua daukon lurpeko plataforma edo hormigoizko zulo bat da. Zuloatik kontainerri lotuta dagoan buzioiak urtego dau eta hanbxe botako dabez heritarrak zaborrak. Zabor batzea kontainerrak igoteko sistema hidrauliko lurperatu baten baten bidez burutuko da. Ekimena Morgako Tokiko Agenda 21 en barruan dago 78.000 €ko inbertsinoa dauko eta Bizkaiko Foru Aldundiaren %54 diru-laguntzea dauko. ■



MUNDAKA



Mundakako Udalak udal jardueren balorazioa baikorra egin dau "Guztiok" sortu zanetik urtebetera. Udalerriko alkarbitza interkulturalaz sentsibilizatu eta sustapenerako programa ait-zindari, gaur egun sustraitua dago. Mundakarren eta etorki-nen alkarbitzea errazteko giro ona sortuteko, helburu horre-gaz zer ikusia dauken jarduerak sartuteko udalerriaren denbora pasarako eskaintzan eta herritarren parte hartzea bultzatuteko, besteak beste, "Guztiok" programatik jarduera piloa sortu da. Udalerriaren dinamizatzaile sozio-kulturala bihurtu da. Umeentzako taille-rrak, horma-irudiak margoztu, kultura trukerako ekimenak: "munduko jokoak" eta "mun-duko entsaladak", argazki erakusketak, kontu kontalariak, urteera kulturalak, irakurtze berbaldiak, perkutsio afro-arabe tailerrak, edo " Sahararekin berbetan": Udalak eta horre-tarako kontratatutako teknikoak Leixuri Urriutiak aurrikusitakoa gainditu egin dau jar-duerek izan daben erantzunak. "Guztiok" txikiengan oinarritu da batez be eta udalerriko ikastetxeek hartu dabe parte. Datorren abenduaren 21ean "Mundakarrak Munduan Zehar" erakusketea inaguratu da; nagusientzako ipuin kontalaria izango da bertan eta erakusketeeagaz amaituko dira aurtongo "Guztiok" udal programearen jarduerak. ■

MURUETA

Muruetako Udalak laster amaituko dauz Olatxu auzoa urbaniza-tuteko beharrak. Uri itxurea emon eta akzesibilitatea bermatu gura dira. Muruetako auzo hau, udalerriko zaharrenetakoa da; San Kristobal baselizearen inguruan sortu zan eta garai baten errotea, hiltegia eta tabernea be izan ebazan. Olatxu auzoa urba-nizatuteko beharrak Muruetako Udalak ordainduko dauz, auzo-rako ibilgailuen sartu-urtena erregulatzeko errotonda bükibxu bat egin, errotearen ubidea bideratu, lurra konpondu eta argi, ur eta saneamenduaren kanalizazioa konponduko dira. ■



NABARNIZ



Nabarnizeko Udalak udalerriari jaino edo adoptatzen dan ume bakotxeko 600 euroko laguntzea emongo dau. Familia bat osa-tuteak dakazen zailtasunen jakitun eta udalerriari bizibarritze demografikoa eta soziala sustatuteko, Nabarnizeko Udalak jagokon ordenantza onartuta, datorren urtetik aurrera 2007ko garagarriaren 1etik aurrera udalerriaren erroldatu dan jaino barri edo adoptatu bakotxeko 600 euroko diru-laguntzea emongo deutse gurasoei. Laguntzea emoteko erabagia legealdi hasieran har-tutako konpromisua da eta horrexe gaitik, hain zuzen darta horretatik aurrera jaino edo adoptatuakoez ezarriko da neurria. Umearen gurasoetako bat behintzat Nabarnizen erroldatuta egon beharko da urte betez eta bai umeak, bai gurasoak 5 urteko errolda konpromisua hartuko dabe. Ordenantza barritzaille hau 2009an hasiko da indarrean. ■

BBK mailegua zero ra baskepensionesen aurrezteko



Penitsa ezazu zeure etorkizunean.
Ezin zara geratu Baskepensionesen
aurreztu barik.

Malgona 5. Hileberria eta Baskepensionesen,
Igaia Kulturaren gurekin batera, 4. Hileberria.
Ezartze data: 2008-12-31. Ildotzen.
Ez da diru-iruzteko. Baki-iruzteko.
Web: www.bbka.com

baskepensiones
s. p. s. v.

bbk

Orkatza oso espezie sensibla da, eta ingurura erraz moldatzen da.



Desde que en 1996 el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia iniciara una labor de reintroducción ordenada del corzo en el sector oriental del territorio para su recuperación, esta especie ha recobrado protagonismo en nuestro bosque. Para mantener una evolución equilibrada del volumen demográfico del corzo, la regulación cinegética, una caza ordenada y a la medida de la especie, constituye la más adecuada forma de control de este bello y emblemático animal.

Garantizar la conservación de los ecosistemas, y especialmente de las especies que en ellos habitan, es el eje motor del plan de actuación cinegética llevado a cabo por el Departamento de Agricultura de la D.F.B. El corzo es un referente de la gestión sostenible de una especie y su entorno, teniendo en cuenta las especiales características de su reproducción y habitabilidad.

Hace más de diez años que se llevaron a cabo las primeras repoblaciones del corzo en el sector oriental del territorio vizcaino Bizkaia, para recupe-



Orkatza geure lurraldean birsortzeko programea garatzen dau Bizkaiko Foru Aldundiak.

EL CORZO, UNA ESPECIE RECUPERADA CINEGÉTICAMENTE

rar la especie. La zona de Urdaibai y Markinaldea, y Lea, el sector oriental, fue la zona elegida para iniciar su reintroducción en los años 1994, 95 y 96, y paulatinamente el corzo se ha ido extendiendo y ha llegado a contactar con las poblaciones naturales de Arratia, Durangesas.

El corzo es una especie muy especial. Se trata de una de las pocas especies en las que el cazador puede participar en su gestión, para hacerla sostenible y proteger la especie. "El cazador recechista que acude al campo es capaz de evaluar y cuantificar

la población de corzos en un área determinada. Saber cuantos corzos hay para poder saber cuantos podrían extraerse. Cosa que con otras especies no ocurre, como en el caso de las especies de aves migratorias", explica Javier Monge Gómez, Jefe de la Sección de Caza y Pesca Continental del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia. Para garantizar una regulación cinegética ordenada, que contribuya a mantener la armonía con el entorno, se establecen unos cupos de capturas, que se calculan gracias a la información que aportan los cazadores. "Se contabiliza el número de ejemplares aprovechando las batidas del jabali. Y en las zonas que tienen guías para la caza a rececho del corzo, estos llevan a cabo un inventario de ejemplares", añaden desde el ente foral. En el caso del corzo, es más indispensable que en cualquier otra especie un aprovechamiento ordenado a través de las extracciones de caza permitidas. Y es que se trata de una especie plástica, porque se adapta fácilmente al entorno, pero a su vez muy sensible. "Es diferente al jabali, que en el número de crías puede duplicar o triplicar a las del corzo". Es una especie sensible, por un lado por su proceso reproductivo, que durante el invierno se ve condicionada por el fenómeno de la diapausa embrionaria.

Mediante este descanso biológico, aunque el óvulo este fecundado desde verano, el proceso de gestación se mantiene en pausa durante el invierno, porque las condiciones climáticas no son por lo general favorables, y los partos se suceden a finales del mes de abril. Por otro lado, la pérdida de cornamenta de los machos durante la época invernal, hace que la especie sea especialmente vulnerable, planificándose las extracciones fuera de ese periodo. Una presión excesiva, sin control, tanto en cantidad como orientada a un sexo u otro, podría generar problemas y llevar a la especie a la desaparición.

Con todas estas variables y con la sensibilidad hacia esta especie como "hoja de ruta", la Diputación Foral de Bizkaia, en colaboración con los propios cazadores han conseguido recuperarla y darle el status de cinegética.

Es cada vez más frecuente la presencia del corzo en nuestras landas, y ya se han establecido unos cupos de caza, que concretan el número de ejem-

hurrengo orrialdera doa ►

AMALUR

Lur Aberats

► aurreko orrialdetik dator

plares a extraer en la zona de caza Urdaibai, "pero este año no se han alcanzado esos cupos, que aquí eran menos de una docena de corzos machos. Lo importante es completar los cupos, porque sino hay que hacer un nuevo análisis y ver si ha habido mortalidades de otro tipo, antes de empezar la siguiente temporada. No se acumulan los cupos de una temporada a otra" explica Javier Monge, Jefe de la Sección de Caza y Pesca de la DFB.

En Urdaibai donde se han llevado a cabo repoblaciones de forma exitosa también se han derivado algunos problemas, como los daños en el sistema agroforestal y las incursiones en las vías públicas. Es ahí donde la extracción cinegética ordenada, de ambos sexos, toma protagonismo. Si se eliminara únicamente a los machos, no sería posible controlar a la población. Al ser una especie territorial, el macho eliminado, será sustituido por otro, que además de desplazarse, ocasionando problemas de incursiones en carreteras, cubriría a sus hembras correspondientes y a las del macho abatido, con lo que no se controla el aumento demográfico que puede originar daños en el sistema agroforestal. Sin embargo, si se establecen los cupos de extracción teniendo en cuenta también a las hembras, ahí sí se consigue controlar la población de la especie.

Dentro de la Asociación de Caza, Txindorra, de la zona de caza controlada de Urdaibai, no hay actualmente un perfil de cazadores de corzo, como tal. Pero lo atractivo de su caza, seguramente la más parecida a la de nuestros antepasados, una caza "cuerpo a cuerpo", que se denomina a rececho, ya ha despertado el interés de algunos cazadores de la zona. Así, la sociedad de arqueros incluida dentro de la Asociación de Caza Txindorra, ha solicitado recientemente permisos para poder cazar el corzo con arco en Busturialdea, una modalidad de caza que se espera poner en práctica en 2009. ■



AMALUR

Lur Aberats

Orkatzarena, espezie baten eta bere inguruaren kudeaketa jasangarriaren erreferentzia da.



Orkatza familia bat Kanalako landetatik.

Aladierno (Erd.)
Rammus Alaternus (lat.)
Txorbeltza (eusk.)

TXORBELTZA, ARTADIETANEN



Hosto iraunko-
 reko zuhaikoa da,
 Rhamnaceen
 familiakoa, 5 bat
 metroko altueraa
 izan dezakeena.

Bere hosto txiki obalatuak, berde disdiritsuak dira eta ertz haginidunak daukez, hostoen artean gordeta, fruitu gorri mamitsuak agertuten dira mordoetan, heldutu direnean baltzitu egiten dira. Bere lore usainsutu berde horisak mordoetan dagoz, baina hain txikiak diranez, ez dira batere deigarriak.

Azala nabardura grisduna, zahartu ahala arrakalatu egiten da. Landarearen atal hau purgatzat erabiltzen da eta gaztaina-koloreko tintea emoten dau, antzina artilea horitzeko erabiltzen zan.

Txorbeltza zuhaitz eta zuhaikoa igokariaren familiakoa da, 900 espezie inguru dira, batzuk fruitu jangarriak emoten dabez, beste batzuk materiale koloretzailleak sortuten dabez edo propietate sendagarriak daukez eta beste batzuk, apaingarrietarako erabiltzen dira.

Egurra harotzek eta torneruek erabiltzen dabe.

Atxarte eta Erehozarreko artadietan egoten da, berrigurra eta ikatza ekoizteko ustiatu diran inguruak dira eurok. Urdaibaiko ustiapen modua zuhaitza oinarritu ebakitea izan da eta horrek sastrekea sortuten dau. Holantxik garatu dira txorbeltza, gurbitzea edo gartxu hostozabala moduko zuhaixkak.

Espezie sendoa da edozein lur motatan hazten da, azidoetan, gazietan, alkalinoetan, lehorretan edo hezietan. Sasitzatan bizi da, leku harritsuak ondo jasaten dauz, fruituek siketeari eusten deute eta haitzen arrakalatan topatu leikez nahiz eta lorategietan be hazi ahal diren. Ebaketen edo sute baten ostean ikusten da txorbeltza barriro hazten dala indartsu. ■

“MARINE ECOSYSTEM EVOLUTION IN CHANGING ENVIRONMENT” EZAGUTU EGIN BEHAR IRAGARTZEKO



Xabier Irigoien, Azti-Tecnaliako aditua MEECEn.

Ezagutza zientifikoa eta iragartzeko ahalmena ezinbestekoak dira gure itxas ekosistemek jasaten daben mahaiku globalari aurre egiteko eta erantzuna emateko. Helburu horrexegaz hain zuzen be, sortu zan EBren MEECE proiektua, Europa guztiko unibertsitateak eta itxas ikerketarako 21 Zentro hartzen dabe parte ekimen honetan. AZTI-Tecnalia, Itxas eta Elikagaien Ikerketa Zentroa da eurotako bat.

Xabier Irigoien, AZTI-Tecnaliako aditua MEECEn.
URREMENDI: Zelako parte hartzea dauko AZTI-Tecnaliak MEECEn?

Xabier Irigoien: AZTI-Tecnalia aldaketa klimatikoak itxas ekosistemengan dauan eragina aztertzen dauan lan taldearen burua da. Eredu hipotetikoaren bidez, etorkizuneko klima egoerak simulatzen dira ekosistemak zein aldaketa izan leitekean jakiteko, zelako eragina izango leukan beste inpaktu batzuetan edo aldaketa aldagaletan, kutsadura, itxas uraren azidotzea, arrantza ... esate baterako.

U: Benetako aldaketa globala dago itxas ekosistemaren funtzionamenduan? Aldaketa klimatikoa da erantzule bakarra?

X.I: Giza inpaktuak, kutsadura, itsasaldeko habitata suntsituea edo gehiegizko arrantza besteak beste, ez dira askeak. Negutegi efektua daben gas isurketek kliman eragiten dabe eta jakina, itxas ekosistema aldaketak emoten dira. Horrek esan gura dau, ekosistemoi bestelako inpaktu batzuk

jasateko ahalmena aldatu egiten jakela. Esate baterako, berotze edo estratifikazio haundiagok, airearen eta uraren tenperatura igotzeak esaterako, inguru baten oinarriko ekoizpena, primarioa, murriztu ahal dabe (arrainak, plaktona, algak...) eta ondorioz arrantzarako be, inguru ekoizpen txikiroa izango litzateke. Espezieen banaketa aldatuten bada, argi dago arrantza jarduera be aldatuko dala. Dana dala, iragartzen orokorrak dagozan aren, ondino giti dakigu eskala baxuagoan gerta leitekenaz. Izan be, bertan, berotzea haize aldaketa edo itsasoko ekoizpena haurditzen daben korronteen ondorioa izan leiteke.

[hurrengo orrialdera doa ▶](#)

El conocimiento científico y su capacidad de predicción son fundamentales para prevenir y responder a la amenaza global que sufren nuestros ecosistemas marinos. Con ese objetivo se creó el proyecto MEECE de la UE, una iniciativa en la que participan 21 Centros de investigación marina y universidades de toda Europa. El Centro de Investigación Marina y Alimentaria de AZTI-Tecnalia, es uno de ellos.



Aldaketa klimatikoak itsas ekosistemengan dauan eragina aztertzeko MEECE programea garatzen dabiz Europa mailan.

"Como medida general y de mitigación, que ya no de freno, del cambio climático hay que apostar por nuevas fuentes de energía renovables, y mayor eficiencia energética para reducir la emisiones de CO2. En aspectos concretos creo que los pasos se deben centrar en estudiar cuáles son los cambios que se van a dar para adaptarnos de la mejor manera posible. Ese es uno de los objetivos de MEECE, tener escenarios y simulaciones de cómo van a ser los ecosistemas marinos en el futuro para poder adaptarnos mejor a esa nueva situación."

► aurreko orrialdetik dator

U: Izan doguz aldaketa klimatikoaren eraginak?

X.I: Bai, aldaketak ikusi dira dagoeneko, bai tenperaturan bai espezieen banaketan. Baina ondiño leku gixitan dago datu serie nahikorik aldaketa klimatikoak edo ozilazio ziklikoak bereizteko. Baina datu nahiko dagoenetan, aldaketa klimatikoaren eragina ageri dan seinaleak nabariak dira.

U: Zer eragin dauko aldaketa klimatikoak biodibertsitatean eta itsas eta itsabazterreko ekosistemetan?

X.I: Lekua zein den jakin behar eragina esateko. Ekosistema "epelak" zabalduen dihardu eta biodibertsitate areagotu egingo da seguruenik. Bertoko aldaketak gatxak dira iragartzen berto-bertoko faktoreenpean dagozalako: korranteak, ibaien isurketak eta batez be, giza jarduerak. Babestutako inguru bat edo dibertsitate haundikoa suntsituten badogu, bertan eman daitekeen biodibertsitate galtzea, aldaketa klimatikoak sor daitekeena baina haundiagoa izango da.

U: Badago espezie edo inguru aldaketaberarik?

X.I: Inguru mehatxatuenak subpolarrek eta polarrak dira, hedadurea asko txikituko jake. Eta ekosistema

